

ESANAK

MIREN AZKARATE

(Jaurizaritzako Kultura sailburua)

«Kulturgintza eta euskalgintzarako apustu benetan estrategikoa da hau»

LUIS MARI BANDRES

(Gipuzkoako Kultura diputatua)

«Euskarak aurrera egingo badu, baliabide guztiak ditu beharrezko, eta parke honetan izango ditu»

JOSE ANTONIO BARANDIARAN

(Andoaingo alkatea)

«Parkea, Andoaintzat eta Euskal Herri osoarentzat, euskaraz lan egin daitekeelako erreferente izango da»

JOAN MARI TORREALDAI

(EGUNKARIAKO Administrazio Kontseiluko lehendakaria)

«Ezohikoa bezain pozgarria da Parkea euskal kulturgintzan gabiltzanontzat»

egiten den kulturak egunean izatea behar du, eta egunean izate horrek exijitzen ditu, besteak beste, teknologia berriak, bitarteko berriak, lan egiteko modu berriak. Euskarak aurrera egingo badu, beharrezko baititu baliabide guzti horiek», esan zuen Luis Mari Bandres, «eta parke honetan, ziur nago, izango dituela».

Miren Azkaratek Kultur Parkeak industria ondarea berreskuratzeko egindako lanagatik goraiatu zuen. «Eta baita, kulturgintza eta euskalgintzarako apustu benetan estrategikoa direnak, eta teknologia berrien bidetik egin behar ditugunak, direlako». Azkenik, Martin Ugalde izena ematean «herri honetako gizon handi baten oroitzua» gordetzea eskertu zuen.

Andoaingo alkate Jose Antonio Barandiaranek zorionak eman zizkien sustatzaileei eta baita, orokorrean, euskalgintza eta kulturgintzako eragile guzti. «2000. urtean jarri genuen lehen harria. Orain proiektua errealitatea da; eta Andoaintzat, eta baita Euskal Herri osoarentzat ere, euskaraz lan egin daitekeenaren erreferente izango da».

Azkenik, Unai Ugaldek bere aitak lehen harriarekin lurperatutako idatzia irakurri zuen.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

EKITALDI ARETOA LEPORAINO. Jende andana etorri zen atzo Martin Ugalde Kultur Parkearen inauguraziora. Ekitaldiarako prestatutako aretoan ez zegoen beste inor sartzeko lekurik. Askok kanpoan gelditu behar izan zuten, ondoren bisita egiteko esperantzaz.

«Pozteko eta harrotzeko modukoa da»

EUSKAL GIZARTEKO ORDEZKARITZA ZABALA. Politika, gizarte, kultura eta euskalgintza alorreko eragile ugari bildu ziren Kultur Parkearen inaugurazio ekitaldian

Iñaki Gurrutxaga | ANDOAIN

Euskal gizarteko orde-kari ugari bildu ziren atzo Andoainen Martin Ugalde Kultur Parkearen inaugurazio ekitaldian. Politikoa, sindikatuetako ordezkariak, idazleak eta oro har euskalgintzaren eta euskal kulturaren alorrean lanean ari diren hainbat eta hainbat lagun. Guztiak parte hartu nahi izan zuten Laborde enpresa zegoen orubean jaio berri den kultur parkearen sorrera ekitaldi jendetsuan.

Euskararen eta euskal kulturaren alde lanean urteak eman dituen, eta bere horretan jarraitzen duen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* euskararen munduan gauzak errotik aldatu direla adierazi zuen: «Beti galtzaile modura ibili gara euskaldunok, indarrrik gabe, baina gune hau ikusita, Euskal Herrian gauzak errotik aldatu dira». Iritzi bera azaldu zuen Joxe Azurmendi idazleak: «Euskaldunok pozteko motibo gutxi ditugu eta harrotzeko sekula ez, baina gaurkoa poztekoa eta harrotzekoa da», zehaztu zuen.

Hasier Etxeberria idazle eta kazetariarentzat Andoaingo

kultur parkean elkartu diren enpresek «sinergia eta indar aprobetxamendu handia» izango dute. Euskal Editoreen Elkarteak lehendakari Jorge Jimenezek euskalgintzan ari diren kideek azpiegituren alorrak aspalditik izan dituzten kezkek «uxatu» direla aipatu zuen. «Azpiegitura aberatsa da honakoa, aberatsa zentzu emankorrean. Gainera, iniziatiba pribatutik sortu da, eta nik horri sekulako balio handia ematen diot, ia parkearen beraren balio guztia bezainbatekoa», azpimarratu zuen.

«Elkarrekin lan egiteko baliabide bat sortu da»

ELAko komunikazio ardura-dun German Kortabariak euskal kulturgintzak «jauzi kualitatibo» bat eman duela aipatu zuen. «Euskalgintzan eta euskaraz mugitzen den kulturak, komunikazioak eta langintzak horrelako zerbait behar zuen. Nire iritziz, elkarrekin lan egiteko baliabide bat sortu da», esan zuen. Rafa Diez, LABeko idazkari nagusia, Euskal Herria eraikitze horrelako guneak behar direla aipatu zuen. Diezen esanetan, «gure kultura herri honen bizkarrezurra da, eta kultur parke

hau estrategikoa izango da zeregina horretan».

Sinergiarako parkea

Elhuyarrek Inaki Irazabalbeitiarentzat «oso inguru funtzionala» izango da parke hau. «Sinergiarako parke bat izango dela espero dut, euskal kulturaren aurpegia eramango duen egitura bat», adierazi zuen. Haren ustez, parke teknologikoen bultzada handia ematen diote ekonomiari eta gizarteari. Imanol Lazkano Bertsozale Elkarteak Lehendakaria ere aurkezpen ekitaldian izan zen, eta parke honek euskal kulturari «fruitu nabarmak eta agerikoak» emango dizkiola esan zuen. «Euskal Herria zerbait baldin bada, ahaleginetik egin da, eta berriz ere ikusten da hemen jende baten ahalegin izugarri bat», nabarmendu zuen Lazkanok. Eneko Olasagasti zinema zu-

zendariak euskal kulturari «on egingo dion itxaropena» duela aipatu zuen, eta egun «gauzak konzentratzeko joera ona» dela iritzi zion.

Ordezkaritza politikoa

EAJ-ko Joseba Egibarrek enpresa mundua eta euskal kulturaren arteko uztarketa nabarmendu zuen: «Garbi dago momentu honetan uztarketa bat egiten dela kultura, euskara, enpresa, teknologia eta etorkizunarekin. Berez apustu bat da, eta nik opa diodana da euskarak eta euskal kulturak enpresarekin eta etorkizunarekin zerikusi garbia duenez, apustua irabazi dezala».

Batasunako Arnaldo Otegi herrigintzaren lana nabarmendu zuen: «Funtsezkoa da azpimarratzea herrigintzak duen potentzialitatea gure herrian. Honek frogatzen du eraikuntzaren indarra».

EAKo Gorka Knorrek, azkenik, sinergiaren garrantzia nabarmendu zuen: «Urte askotako lanaren isla bat, sinergia biltzaile den lan amankomuna; uste dut alde horretatik, eta baita ere duen ikuspegi berri-tatzailearengatik, bere ekarpena ezezik, arrakasta ere izango duela».

BISITA

Kultur Parkearen inaugurazio ekitaldia amaitu ostean gonbidatuek bisitaldia egin zuten